

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

12887 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

JUAN CARLOS I.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau irakurtzen duten guztiek jakin dezaten.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela, eta Nik, hemen, berretsi egiten dudala:

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.

Atariko titulua.

1. artikulua. Xedea.

I. titulua. Jarduera publikoaren gardentasuna.

I. kapitulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.

2. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.

3. artikulua. Beste obligaziodun batzuk.

4. artikulua. Informazioa emateko betebeharrak.

II. kapitulua. Publikotasun aktiboa.

5. artikulua. Printzipio orokorrak.

6. artikulua. Erakundeari, antolamenduari eta plangintzari buruzko informazioa.

7. artikulua. Garrantzi juridikoko informazioa.

8. artikulua. Ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioa.

9. artikulua. Kontrola.

10. artikulua. Gardentasunaren Ataria.

11. artikulua. Printzipio teknikoak.

III. kapitulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

1. sekzioa. Araubide orokorra.

12. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

13. artikulua. Informazio publikoa.

14. artikulua. Informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak.

15. artikulua. Datu pertsonalak babestea.

16. artikulua. Informazioaren zati bat eskuratzea.

2. sekzioa. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzea.

17. artikulua. Informazioa eskuratzeko eskaera.

18. artikulua. Eskabideak ez onartzeko kausak.

19. artikulua. Izapideak.

20. artikulua. Ebazpena.

21. artikulua. Informazio-unitateak.

22. artikulua. Eskuratzea formalizatzea.

3. sekzioa. Aurkaratzeen araubidea.

23. artikulua. Errekurtsoak.

24. artikulua. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari egindako erreklamazioak.

II. titulua. Gobernu ona.

25. artikulua. Aplikazio-eremua.

26. artikulua. Gobernu onaren printzipioak.

27. artikulua. Interes-gatazken arloko arau-haustek eta zehapenak.

28. artikulua. Ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren alorreko arau-haustek.

29. artikulua. Diziplinazko arau-haustek.

30. artikulua. Zehapenak.

31. artikulua. Eskumena duen organoa eta prozedura.

32. artikulua. Preskripzioa.

III. Titulua. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua.

33. artikulua. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua.

34. artikulua. Helburuak.

35. artikulua. Osaera.

36. artikulua. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Batzordea.

37. artikulua. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluko lehendakaria.

38. artikulua. Eginkizunak.

39. artikulua. Araubide juridikoa.

40. artikulua. Gorte Nagusiekiko harremanak.

Lehenengo xedapen gehigarria. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: arauketa bereziak.

Bigarren xedapen gehigarria. Arauak berrikustea eta sinplifikatzea.

Hirugarren xedapen gehigarria. Zuzenbide publikoko korporazioak.

Laugarren xedapen gehigarria. Erreklamazioa.

Bosgarren xedapen gehigarria. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoarekiko lankidetzak.

Seigarren xedapen gehigarria. Errege Etxearen gaineko informazioa.

Zazpigarren xedapen gehigarria.

Zortzigarren xedapen gehigarria.

Azken xedapenetako lehenengoa. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzea.

Azken xedapenetako bigarrena. Gobernu kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguen arteko interes-gatazkek arautzeari buruzko Legea aldatzea (5/2006 Legea, apirilaren 10ekoa).

Azken xedapenetako hirugarrena. Aurrekontu Lege Orokorra aldatzea (47/2003 Legea, azaroaren 26koa).

Azken xedapenetako laugarrena. Estatuko Administrazio Orokorren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legearen hamargarren xedapen gehigarria aldatzea (6/1997 Legea, apirilaren 14koa).

Azken xedapenetako bosgarrena.

Azken xedapenetako seigarrena. Kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko Legea aldatzea (10/2010 Legea, apirilaren 28koa).

Azken xedapenetako zazpigarrena. Erregelamendu bidezko garapena.

Azken xedapenetako zortzigarrena. Eskumen-titulua.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Indarrean sartzea.

HITZAURREA

I

Gardentasunak, informazio publikoa eskuratzeko bideak eta gobernu onaren arauak izan behar dute ekintza politiko ororen funtsezko ardatz. Arduradun politikoen jarduna aztertzen denean, herritarrek jakiten dutenean nola hartzen diren eragiten dieten erabakiak, nola erabiltzen diren funts publikoak edo zein irizpideren arabera jarduten diren gure erakundeak, orduan soilik esan dezakegu hasi dela botere publikoek gizarte kritiko eta zorrotzari, botere publikoetan parte hartzeko aukera eskatzen duen gizarteari, erantzuteko prozesua.

Gardentasun-maila altuak eta gobernu onerako arauak dituzten herrialdeak dira erakunde sendoenak dituztenak, eta horrek hazkuntza ekonomikoari eta gizarte-garapenari laguntzen die. Herrialde horietan, herritarrek hobeto eta irizpide gehiagorekin epaitu dezakete beren arduradun publikoen gaitasuna, eta horren arabera erabaki. Jarduera publikoa hobeto kontrolatuta, demokrazia berritzen laguntzen da, Estatuaren eraginkortasuna eta eragimena sustatzen dira, eta hazkunde ekonomikoa bultzatzen da.

Lege honek hiru arlotan eragiten du: jarduera publikoaren gardentasuna handitu eta indartzen du –administrazio eta erakunde orok bete beharreko publikotasun aktiboko betebeharren bidez antolatzen da gardentasuna–, informazioa eskuratzeko bidea aitortu eta bermatzen du –eremu subjektibo eta objektibo zabaleko eskubide gisa arautua dago– eta arduradun publikoek bete beharreko gobernu onerako arauak eta horiek ez betetzearen ondorio juridikoak ezartzen ditu –jarduera publikoak burutzen dituen ororentzat erantzukizun-eskakizun bihurtzen da–.

Hiru alderdi horien ikuspuntutik, legeak aurrerapen handia egiten du arlo honetan, eta gainerako demokrazia sendoeekin parekatzeko moduko estandarrak ezartzen ditu. Azken batean, funtsezko eta beharrezko pausoa da eta, horretarako, Estatuak, arlo horretan, ekintza multilateralak eta nazioarteko agiriak sustatuko ditu aurrerantzean, bai eta horiekin bat egin ere.

II

Espainiako ordenamendu juridikoan badaude zenbait subjektuen publikotasun aktiboko betebeharrak biltzen dituzten sektore-arauak. Horrela, bada, adibidez, kontratuei, diru-laguntzei, aurrekontuei edo goi-karguen jarduerari dagokienez, gure herrialdeak nabarmentzeko moduko gardentasun-maila dauka. Alabaina, arautze hori egun ez da nahikoa, eta ez ditu egungo eskakizun sozial eta politikoak betetzen. Hori dela-eta, lege honekin, publikotasun aktiboko betebeharrak taxutzeko prozesuan sakontzen da. Arlo horretan bildu behar dira administrazio publiko guztiak, botere legegile eta judizialeko organoak –zuzenbide administratiboaren mendeko jarduerari dagokienez– eta konstituzioaren eta estatutuen araberrako bestelako organoak. Halaber, lege hau aplikatuko zaie garrantzi publiko berezia dutelako edo funts publikoak jasotzen dituztelako beren jardueraren gardentasuna indartu behar duten zenbait erakunderi ere.

Legeak publikotasun aktiboko betebeharrak zabaldu eta gogortzen ditu hainbat arlotan. Erakunde-, antolamendu- eta plangintza-informazioari dagokionez, bere aplikazio-eremuaren baitako subjektuak behartzen ditu honako hauei buruzko informazioa argitaratzera: burutzen dituzten funtzioak, aplikatu behar zaien araudia, antolamendu-egitura, beren plangintza-tresnak eta horien betetze-mailaren ebaluazioa. Garrantzi juridikoa duen eta administrazioaren eta herritarren arteko harremanei zuzen eragiten dion informazioari dagokionez, argitaratzen denean segurtasun juridiko handiagoa emango duten dokumentu ugari biltzen ditu legeak. Era berean, ekonomiaren, aurrekontuaren eta estatistikaren arloan garrantzia duen informazioari dagokionez, herritarren eskura egon eta horiek ulertzeko modukoa izan behar duen katalogo zabal bat ezartzen du, tresna ezin hobea delako baliabide publikoen kudeaketa eta erabilera kontrolatzeko. Azkenik, betebeharrak gisa ezartzen da maizen eskatzen den informazioa argitaratzea, gardentasun-betebeharrak bat etor daitezten herritarren interesekin.

Hainbeste informazioaren argitalpena bideratzeko eta publikotasun aktiboko betebeharroriek betetzea errazagoa izan dadin, Legeak aurreikusten du Gardentasunaren Ataria sortu eta garatzea, ez baita egokia alde batetik gardentasunaz hitz egitea eta, bestetik, zabalduko informaziorako bidea errazteko bitarteko egokirik ez ematea. Gaur egun, teknologia berriek aukera ematen digute lege honen xedapenak betetzeko oso baliagarriak diren tresnak garatzeko; tresna horiek erabilita, irispide-puntu bakarraren bidez, herritarrek erabilgarri dagoen informazio guztia eskuratu ahal izango du.

Legeak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ere arautzen du, nahiz eta aurrez ere garatu zen gure ordenamenduko beste hainbat xedapenetan. Alabaina, konstituzioaren 105.b) artikuluko aurreikuspenetik abiatuta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 37. artikuluan garatzen du herritarrek administrazioaren artxiboetan dauden erregistro eta agiriak eskuratzeko eskubidea. Baina arautze horrek baditu zenbait hutsune, eta agerian geratu izan dira sarritan; informazioa eskuratzeko eskubidearen xedea ez baita oso argia, jada amaituta dauden administrazio-prozeduretako dokumentuak soilik eskuratzeko aukera ematen baitu eta eskubide hori gauzatzea oso mugatua baitago praktikan.

Era berean, badira informazio publikoa eskuratzeko bidea jasotzen duten beste arau batzuk, baina irismen sektoriala soilik dudenak eta Erkidegoko bi zuzentarautatik ondorioztatuta; hala nola, ingurumen arloko informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikorako eta justiziarako eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legea eta sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea; azken horrek administrazioen eta sektore publikoko erakundeen esku dauden agirien erabilera pribatua arautzen du. Horrez gain, herritarrek sektore publikoetarako sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak aitortzen du herritarrek eskubidea dutela bitarteko elektronikoen bidez jartzeko harremanetan administrazioarekin eta, aldi berean, lege honen ildo berari jarraitzen dio: gardentasun-kultura ezartzea, administrazioa modernizatzea, karga burokratikoak murriztea eta parte-hartzea, gardentasuna eta informaziorako irispidea errazteko bitarteko elektronikoa erabiltzea.

Horrela, bada, legea ez da ezerezetik abiatzen, orain arte lortutakoaren ildoari eusten dio, gabeziak osatuz, akatsak konponduz eta egungo garaiekin eta herritarren interesekin bat datorren esparru juridikoa sortuta.

Zuzenbide konparatuaren ikuspegitik, Europar Batasunak nahiz estatu kide gehienek badituzte jada, beren ordenamendu juridikoetan, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta gardentasuna arautzen dituzten berariazko legeak. Espainiak ezin zuen salbuespen izaten jarraitu eta, gure inguruko herrialdeen ereduak oinarri hartuta, araudi hau prestatu du.

Gobernu onari dagokionez, lege honek aurrerapauso ikaragarria dakar. Programen inguruko eta inolako indar juridikorik gabeko printzipioak sartu dira lege-mailako arau honetan eta arduradun politiko guztiek bete beharreko zehapen-araubidea interpretatu eta aplikatzeari buruzko informazioa ematen dute; arduradun horiek, edozein gobernu edo administrazioetakoak direla ere, eta, hain zuzen ere, dituzten funtzioengatik, ereduak jokabidea izan behar baitute.

III

Lege honen I. tituluak zerbitzu publikoak ematen dituen edo administrazio-agintea duen subjektu ororen gardentasuna arautu eta areagotzen du, hainbat xedapenen bidez. Xedapen horiek bi kapitulutan biltzen dira, ikuspegi bikoitzetik: publikotasun aktiboa, batetik, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, bestetik.

Titulu honen aplikazio-eremu subjektiboa I. kapituluan ezartzen da; oso zabala da eta administrazio publiko, erakunde autonomo, estatu-agentzia, enpresa-erakunde publiko eta zuzenbide publikoko erakunde guztiak biltzen ditu, betiere sektore edo jarduera jakin baten gaineko arautze- edo kontrol-funtzioak badituzte. Eremu horretan biltzen dira, halaber, izaera juridiko propioa duten zuzenbide publikoko entitateak, direla edozein administrazio publikori lotutakoak edo haien mendekoak, unibertitate publikoak barne. Administrazio-

zuzenbideko jardueri dagokienez, legea zuzenbide publikoko korporazioei, Errege Etxeari, Diputatuen Kongresuari, Senatuari, Konstituzio Auzitegiari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari ere aplikatzen zaie, bai eta Espainiako Bankuari, Estatu Kontseiluari, herriaren defendatzaileari, Kontuen Auzitegiari, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari eta autonomia-erkidegoetako pareko erakundeei ere. Erakunde horiek kapital sozialean % 50 edo gehiagoko zuzeneko nahiz zeharkako partizipazioa duten merkataritza-sozietateei, sektore publikoko fundazioei eta aipatutako administrazio, organismo eta erakundeek osatutako elkarteei ere aplikatzen zaie. Halaber, honako hauei ere aplikatuko zaie: alderdi politikoak, erakunde sindikalak eta erakunde enpresarialak, eta kopuru jakin bateko laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatu guztiak. Azkenik, zerbitzu publikoak ematen edo administrazioa ahalaz baliatzen diren pertsonak ere lotuta dauden administrazioari eman beharko diote, hark aurrez eskatuta, lege honetan ezarritako betebeharrak betetzeko behar duen informazio guztia. Betebehar bera aplikatuko zaie sektore publikoko kontratuen esleipendunei.

II. kapitulua publikotasun aktiboari buruzkoa da, eta hainbat betebehar ezartzen ditu I. tituluaren aplikazio-eremuko subjektuentzat; informazio jakin batzuk ezagutzera eman beharko dituzte, herritarrek eskatzen ez badituzte ere. Puntu honetan biltzen dira erakundeari, antolamenduari eta plangintzari buruzko informazioaren gaineko datuak, garrantzi juridikokoak eta ekonomia-, aurrekontu- eta estatistika-arlokoak.

Ezagutzera ematen den informazioa guztiok eskuratzea errazagoa izan dadin, Gardentasunaren Ataria sortuko da. Atari horretan, publikotasun aktiboaren betebeharra duen informazioaz gain, gehien eskatzen den informazioa ere emango da. Ataria topagune eta zabalkunderako gune izango da; herritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea ulertzeko modu berriaren adierazgarri. Gainera, aurreikusten da Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoetako administrazioek eta toki-administrazioa erakundeek lankidetzan-neurriak hartzea, publikotasun aktiboko betebeharrak bete daitezzen.

III. kapituluan zabal jorratzen da informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Pertsona orok du eskubide hori, eta eskaera arrazoitu gabe baliatu ahal izango da. Eskubide hori mugatzeko kasu bakarra da beharrezkoa izatea informazioaren izaeragatik –Espainiako Konstituzioan xedatutakoaren ondorioz– edo babestutako beste interes batzuekin gatazkan sartzen delako. Edonola ere, aurreikusitako mugak kaltea (mugarekin zaintzen den interesaren kaltea) eta zabalkundearen gaineko interes publikoa (dena delako kasuan informazioaren zabalkundearen interes publikoa ez gailentzea) aztertuta aplikatuko dira, neurri eta xedearen eta helburuen ondoriozko mugekin. Halaber, informazioa eskuratzeko datu pertsonalen babesari eragin diezaiokenez zuzenean, bi eskubideen arteko harremana argitzen du legeak, beharrezko oreka-tresnak ezarrita. Horrela, bada, alde batetik, informazioak organoaren antolamenduari edo jarduera publikoari eragiten dionean zuzenean, informazioa eskuratzeko eskubideari emango zaio lehentasuna; aldiz, bestetik, araudian babes berezikotzat jotako datuak babesten dira –ezin du bestela izan–, eta horiek eskuratzeko, oro har, titularraren baimena beharko da.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea errazago izan dadin, legeak prozedura azkarra ezartzen du, erantzuteko epe labur batekin, eta xedatzen du informazio-unitateak sortuko direla Estatuko Administrazio Orokorrean, herritarrak erraz jakin dezan zein organori aurkeztu behar dion eskaera eta zein den eskaera hori izapidetzeko eskumena duena.

Inpugnazioei dagokienez, auzibidera jo aurretiko aukerako erreklamazio bat sortzen da, administrazio-errekurtsioak ordezkatzeko dituen; Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua, organo berri eta independentea, arduratuko da erreklamazio horretaz.

II. tituluak lege-maila ematen die Gobernu kideen eta Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako administrazioa goi-karguen eta parekoen zereginak zuzendu behar dituzten printzipio etikoei eta jardura-printzipioei. Halaber, argitu eta gogortu egiten da horiei aplikatu beharreko zehapen-erregimena, duten erantzukizunarekin parekatzeko.

Sistema honen xedea da eraginkortasunaren, austeritatearen, inpartzialtasunaren eta, batez ere, arduraren printzipioen arabera jardungo diren zerbitzari publikoak edukitzea herritarrek. Xede hori betetzeko, legeak hiru esparrutan banatutako zehapen-erregimena ezartzen du; hauek dira hiru arloak: interes-gatazkaren arloko arau-hausteak, ekonomia-aurrekontuaren kudeaketakoak eta diziplina-arlokoak. Horiez gain, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa ez betetzearen ondoriozkoak ere biltzen dira. Ekonomia-aurrekontuaren arloari dagokionez, azpimarratu behar da zehapenak ezarriko zaizkiela kreditu nahikorik gabe edo aurrekontuari buruzko araudian ezarritakoa urratuta gastuak konprometitzen, obligazioa likidatzen eta ordainketak agintzen dituztenei edo aurrekontu-araudi baliokidean aipatzen den funtsen inbertsioa justifikatzen ez dutenei. Horrela, funtsezko kontrol-tresna bat ezartzen da, jokabide arduragabeak eta zuzenbide-estatuan onartezinak direnak saihesteko.

Aurreikusitako arau-hausteak egiteak zehapenak ezartzea eragingo du, hala nola, arau-hauslea bere kargu publikotik kentzea, kalte-ordainen pentsioak ez jasotzea, oker jasotako zenbatekoak itzuli behar izatea eta Ogasun Publikoari kalte-ordainak eman behar izatea. Adierazi behar da zehapen horiek Gobernu kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguen interes-gatazkei buruzko apirilaren 10eko 5/2006 Legean dutela oinarria.

Horrez gain, ezartzen du arau-hauste oso larriak egiten dituztenak ezin izango direla zenbait kargu publikotarako izendatu 5 eta 10 urte arteko aldian.

Legearen III. tituluak sortu eta arautzen du Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua; organo independente horri esleitzen zaizkio administrazio publikoaren jardunean gardentasunaren kultura sustatzeko, publikotasun aktiboko betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta gobernu onaren xedapenak betetzen direla bermatzeko eskumenak. Beraz, lege hau egoki aplikatzen dela bermatzeko gainbegiratze- eta kontrol-organoa sortzen da.

Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua organo independentea da; gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa du eta egitura sinpleak, espezializazioa eta operatibitatea bermatzeaz gain, egitura administratibo handiak sortu behar izatea saihesten du. Bere jarduerak burutzeko independentzia eta autonomia izango dituela bermatzeko, parlamentuaren babesa beharko da presidentea izendatzeko.

Autonomia-erkidegoen eskumenak ahalik eta gehien errespetatzeko, berariaz aurreikusten da Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak hitzarmena sinatzen duten autonomia-erkidegoetan soilik izango duela eskumena; bestela, estatu-mailan Kontseiluak dituen eskumenak eman zaizkion organo autonomikoaren esku egongo dira eskumen horiek.

Xedapen gehigarriek hainbat arlo jorratzen dituzte: informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erregulazio bereziak aplikatzea, arauak berrikusi eta sinplifikatzea –gobernu ona gauzatzea eta gardentasuna izatea baita indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia argitzea– eta Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren arteko elkarlana ezartzea, datu pertsonalak babestearen inguruan legean ezarritakoa aplikatzeko irizpideak zehazteko.

Azken xedapenetan, beste kontu batzuen artean, azaroaren 26ko 30/1992 Legean artxibo eta erregistro administratiboetara jotzeko eskubidearen erregulazioa aldatzen da, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguen ondasun eta ondare-eskubideen erregistroko zenbait informazioren publikotasuna zabaltzen da, eta azaroaren 26ko 47/2003 Aurrekontu Lege Orokorren 136. artikulua 4. paragrafoan aurreikusitakoa argitara emateko derrigortasuna zabaltzen da.

Azkenik, indarrean pixkanaka sartzeko aurreikusten du Legeak, xedapenen aplikazioak eragingo dituen egoera berezien arabera.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. *Xedea.*

Lege honen xedeak dira jarduera publikoaren gardentasuna zabaldu eta indartzea, jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautu eta bermatzea, arduradun publikoek bete beharreko gobernu onaren betebeharrak ezartzea eta horiek ez betetzearen ondoriozko ondorioak ezartzea.

I. TITULUA

Jarduera publikoaren gardentasuna

I. KAPITULUA

Aplikazio-eremu subjektiboa.

2. artikulua. *Aplikazio-eremu subjektiboa.*

1. Honako hauei aplikatuko zaizkie titulu honetako xedapenak:

a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako eta Ceutako Hiriko eta Melillako Hiriko administrazioak eta toki-administrazioak erakundeak.

b) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu komunak; Gizarte Segurantzarekin lankidetzan jarduten diren lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuak.

c) Independentzia funtzionala edo legeak aitortutako autonomia berezia duten erakunde autonomo, estatu-agentzia, enpresa-erakunde publiko eta zuzenbide publikoko erakundeak, sektore edo jarduera jakin baten gaineko kanpo erregulazio- edo gainbegiratze-funtzioak esleituta badituzte.

d) Izaera juridiko propioa duten eta edozein administrazio publikori edo horien mendekoei –unibertsitate publikoak barne– lotutako zuzenbide publikoko erakundeak.

e) Zuzenbide publikoko korporazioak, administrazio-zuzenbidearen mendeko jardueri dagokienez.

f) Errege Etxea, Diputatuen Kongresua, Senatua, Konstituzio Auzitegia eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Espainiako Bankua, Estatu Kontseilua, Herriaren Defendatzailea, Kontuen Auzitegia, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua eta pareko erakunde autonomikoak, administrazio-zuzenbidearen mendeko jardueri dagokienez.

g) Merkataritza-sozietateak, artikulua honetako entitateek 100eko 50eko baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.

h) Fundazioei buruzko legerian aurreikusten diren sektore publikoko fundazioak.

i) Artikulu honetan aurreikusitako administrazio, organismo eta erakundeek osatutako elkarteak. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 5. artikuluan aurreikusitako lankidetzako organoak ere sartzen dira, baldin eta izaera berezia dutelako eta administrazio-egitura propiorik ez dutelako titulu honetako xedapenak aplikatzekoak bazaizkie. Kasu horietan, lege honetatik ondorioztatutako obligazioak lankidetzako organoaren idazkari den administrazioak bete beharko ditu.

2. Titulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, administrazio publikotzat jotzen dira aurreko paragrafoa a) eta d) letretan bildutako erakunde eta entitateak.

3. artikulua. *Beste obligaziodun batzuk.*

Titulu honen II. kapituluko xedapenak honako hauei ere aplikatuko zaizkie:

a) Alderdi politiko, erakunde sindikal eta enpresaburu-erakundeak.

b) Urtebetez 100.000 euro baino gehiagoko laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo urteko sarreren % 40 –5.000 euroko minimoarekin–, gutxienez, laguntza edo diru-laguntza publikoetatik eskuratzen duten erakunde pribatuak.

4. artikulua. *Informazioa emateko betebeharrak.*

Aurreko artikuluetan aipatutakoez bestelakoak diren eta zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio-ahalak dauzkaten pertsona fisiko eta juridikoek betebeharra dute 2.1 artikuluan aurreikusitako administrazio, organismo edo erakundeei –horiekin lotuta badaude– titulu honetan ezarritako betebeharrak betetzeko behar duten informazioa ematera, hala eskatutakoan. Obligazio hori sektore publikoko kontratuen esleipendunei ere badagokie, kontratuan aurreikusitako baldintzetan.

II. KAPITULUA

Publikotasun aktiboa

5. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

1. 2.1 artikuluan aipatutako subjektuek aldizka argitaratuko dute jarduera publikoaren funtzionamenduaren eta kontrolaren inguruan egiten duten jardueraren gardentasuna bermatzeko beharrezkoa den informazio eguneratua.

2. Kapitulu honetan jasotako gardentasun-betebeharrak gain, araudi autonomikoak eta publikotasunaren arloan erregimen zabalagoa aurreikusten duten berariazko beste xedapen batzuk ere aplikatu ahal izango dira.

3. Aplikatzekoak izango dira, halaber, hala badagokio, 14. artikuluan informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen inguruan aurreikusitako mugak eta, bereziki, datu pertsonalak babestearen ondoriozkoak direnak (15. artikulua). Horren inguruan, informazioak bereziki babestutako datuak baditu, datu horietatik bereizten denean soilik argitaratuko da.

4. Gardentasun-betebeharren mendeko informazioa dagozkion egoitza elektronikoko edo web-orrietan argitaratuko da, argi, era antolatuan eta interesdunek ulertzeko moduan eta, ahal bada, berriz erabiltzeko moduko formatuetan. Argitaratutako informazioa eskuragarria, kalitatezkoa eta elkar eragiteko eta berrerabiltzeko modukoa izateko bitartekoak ezarriko dira, bai eta informazio hori identifikatu eta lokalizatzeko beharrezkoak direnak ere.

Interes sozial edo kulturalerako xedea besterik ez duten irabazi-asmorik gabeko entitateak badira eta 50.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua badute, entitate horri laguntza edo diru-laguntza publiko gehien ematen dizkion administrazio publikoak eskura jarritako bitarteko elektronikoen bidez bete ahal izango dira lege honetan ezarritako betebeharrak.

5. Informazio guztia ulergarria, erraz eskuratzeko modukoa eta doakoa izango da, eta desgaituentzat eskuragarri egongo da bitarteko edo formatu egokien bidez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezzen, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioari jarraiki.

6. artikulua. *Erakundeari, antolamenduari eta plangintzari buruzko informazioa.*

1. Betetzen dituzten funtzioei, aplikatu beharreko araudiari eta antolamendu-egiturari buruzko informazioa argitaratu behar dute titulu honen aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek. Horretarako, organoetako arduradunak eta haien profila eta ibilbide profesionala jasotzen dituen organigrama eguneratua argitaratuko dute.

2. Administrazio publikoek helburu zehatzak finkatzen dituzten urteko eta urte anitzeko plan eta programak argitaratuko dituzte, bai eta horiek betetzeko jarduera, bitarteko eta epeak ere. Horien betetze-maila eta emaitzak aldizka ebaluatu eta argitaratu beharko dira administrazio eskudunak zehaztutako eran, neurketa eta balorazioko adierazleekin batera.

Estatuko Administrazio Orokorraren esparruan, zerbitzuen ikuskaritza orokorreari dagokie plan eta programa horien betetze-maila ebaluatzea.

7. artikulua. *Garrantzi juridikoko informazioa.*

Herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, honako hauek argitaratuko dituzte:

a) Jarraibideak, instrukzioak, erabakiak, zirkularrak edo partikularrek edo beste organo batzuek egindako kontsulten erantzunak, zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.

b) Beren ekimenekoak diren lege-aurreproiektuak eta legegintza-dekretuen proiektuak, aholku-organoei irizpena eskatu bazaie. Irizpena ez bada nahitaezkoa, onartzen denean argitaratuko da.

c) Beren ekimenekoak diren erregelamendu-proiektuak. Irizpenak eskatzea nahitaezkoa denean, aholku-organoei irizpenak eskatzen zaizkienean argitaratuko dira, eta horrek ez du eragingo, nahitaez, entzunaldi publikoa ematea.

d) Arau-testuak egiteko espedienteetako memoriak eta txostenak; bereziki uztailaren 3ko 1083/2009 Errege Dekretuak araututako arau-eraginaren analisiari buruzko txostena.

e) Indarreko legeria sektorialaren arabera izapidetzean jendaurrean jarri behar diren dokumentuak.

8. artikulua. *Ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioa.*

1. Titulu honen aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek ekonomian edo aurrekontuan eragina duten administrazio-kudeaketako egintza hauei buruzko informazioa argitaratu beharko dute, gutxienez:

a) Kontratu guztiak, honako datu hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den –iragarri bada–, prozeduran parte hartu duten lizitatzailleen kopurua, esleipendunaren nortasuna eta kontratuaren aldaketak. Kontratuetan atzera egin eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira. Kontratu txikiei buruzko informazioa hiru hilean behin argitaratu ahal izango da.

Halaber, sektore publikoko kontratuei buruzko legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean zenbateko portzentajea suposatzen duten adierazten duten estatistika-datuak argitaratuko dira.

b) Sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak emateko obligazioa dutenak eta adostutako obligazio ekonomikoak –baldin badaude–. Halaber, sinatzen diren kudeaketa-aginduak ere argitaratuko dira, honako datu hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, obligazio ekonomikoak eta azpikontratazioak (esleipendunak, esleipen-prozedura eta esleipenaren zenbatekoa adierazita).

c) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak, zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak adierazita.

d) Aurrekontuak, partida nagusiak eta gauzatzeari eta administrazio publikoen aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetze-mailari buruzko informazio eguneratu eta ulergarria adierazita.

e) Argitaratu beharreko urteko kontuak eta kanpo-kontrolako organoek horiei buruz egiten dituzten kontu-auditorien eta fiskalizazioen txostenak.

f) Titulu honen aplikazio-eremuko entitateetako goi-kargu eta arduradun nagusiek jasotzen dituzten urteko ordainsariak. Halaber, kargua uztean jasotako kalte-ordainak ere argitaratuko dira, jaso badituzte.

g) Bateragarritasuna baimentzeko edo aitortzeko ebazpenak, langile publikoei eragiten dietenak, eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguek edo autonomia-erkidegoko edo tokiko araudien arabera horien pareko direnek kargua utzitakoan jarduera pribatuan jarduteko baimentzen dituzten ebazpenak.

h) Tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren urteko aitortpenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitakoaren arabera. Araudiak zehazten ez duenean zein baldintzatan eman behar diren argitara aitortpen horiek, Estatuko Administrazio Orokorraren esparruko interes-gatazkei buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da. Betiere, ez dira emango ondasun higiezinaren kokalekuari buruzko datuak, eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna bermatuko da.

i) Beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezko estatistika-informazioa, administrazio eskudunak xedatutakoaren arabera.

2. 3. artikuluan aipatutako subjektuek artikuluko honen lehen ataleko a) eta b) letretan adierazitako informazioa argitaratu beharko dute, administrazio publiko batekin sinatutako kontratu edo hitzarmenak direnean. Halaber, c) letran aipatutako informazioa argitaratu beharko dute laguntza administrazio publiko batek ematen badu.

3. Administrazio publikoek beren jabetzakoak diren ondasun higiezinaren zerrenda argitaratuko dute, bai eta beste batzuen ere, beren jabetzakoak izan ez arren haien gaineko eskubide errealeen bat badute.

9. artikulua. *Kontrola.*

1. Estatuko Administrazio Orokorrak artikuluko honetan xedatutako obligazioak betetzen ote dituen kontrolatzeko ardura Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak izango du.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako eskumenaz baliatuta, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak, arau ezarritako prozeduraren arabera, ebazpenak eman ahal izango ditu, obligazio horiek ez betetzeari uzteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko eta egoki diren diziplina-jarduketak abiatzeko.

3. Kapitulu honetan araututako publikotasun aktiboko obligazioak behin eta berriz ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da, ez-betetze horien erantzuleei arauetan aurreikusitako diziplina-araubidea aplikatzeko orduan.

10. artikulua. *Gardentasunaren Ataria.*

1. Estatuko Administrazio Orokorrak Gardentasunaren Ataria garatuko du, Lehendakaritza Ministerioaren mende, aurreko artikuluetan adierazitako informazio guztia, haren jarduera-eremuaren barruan dagoena, herritarrentzat eskuragarri jartzeko.

2. Gardentasunaren Atarian Estatuko Administrazio Orokorraren informazioen artean gehien eskatzen direnak emango dira, erregelamenduz ezarritako eran.

3. Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoetako administrazioak, Ceuta eta Melillako hirietako administrazioek eta toki-administrazioetako entitateek neurri osagarriak eta lankidetzakoak hartu ahal izango dituzte kapitulu honetako gardentasun-obligazioak betetzeko.

11. artikulua. *Printzipio teknikoak.*

Gardentasunaren Atarian, erregelamenduz ezarritako baldintza teknikoaren arabera argitaratuko da informazioa, eta honako printzipio hauen arabera izan beharko du informazio horrek:

a) Irisgarritasuna: dokumentuei eta informazio-baliabideei buruzko informazio egituratua emango da, informazioa errazago identifikatu eta aurkitzeko.

b) Elkarreragingarritasuna: argitaratzen den informazio guztia Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalaren (urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuak onartu zuen) eta elkareragingarritasunari buruzko arau teknikoaren arabera izango da.

c) Berrerabilera: sustatuko da argitaratutako informazioa berrerabiltzeko moduko formatuetan argitaratzea, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legean eta hori garatzeko araudian aurreikusitakoaren arabera.

III. KAPITULUA

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea*1. sekzioa. Eraubide orokorra*12. artikulua. *Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.*

Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan xedatutako eta lege honetan garatutako baldintzetan.

Halaber, autonomia-erkidegoko araudia aplikatu beharko da, betiere bakoitzaren eskumenen barruan.

13. artikulua. *Informazio publikoa.*

Informazio publiko dira titulu honen aplikazio-eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere.

14. artikulua. *Informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak.*

1. Informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango da, informazio hori eskuratzek honako hauei kalteren bat eragiten badie:

- a) Segurtasun nazionala.
- b) Defentsa.
- c) Kanpo-harremanak.
- d) Segurtasun publikoa.
- e) Zigor-, administrazio- edo diziplina-arloko egintza ez-zilegien prebentzioa, ikerketa eta zigorra.
- f) Prozesu judizialtako aldean berdintasuna eta benetako babes judiziala.
- g) Zaintza, ikuskaritza eta kontroleko funtzio administratiboak.
- h) Interes ekonomiko eta komertzialak.
- i) Ekonomia- eta moneta-politika.
- j) Sekretu profesionala eta jabetza intelektual eta industrialak.
- k) Erabakiak hartzeko prozesuetarako beharrezko konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermea.
- l) Ingurumenaren babesa.

2. Mugak xedearen eta babes-helburuaren arabera izango dira, eta kontuan hartuko da kasu jakin bakoitzaren egoera, bereziki, informazioa eskuratzeko justifikatzen duen interes publiko edo pribatu handiagorik ote dagoen.

3. 2. sekzioan aurreikusitakoaren arabera artikulua hau aplikatuta ematen diren ebazpenak argitaratu egin beharko dira, datu pertsonalak bereizi ondoren eta, 20. artikuluan 3. paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, interesdunei jakinarazi ondoren.

15. artikulua. *Datu pertsonalak babestea.*

1. Eskatutako informazioak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikuluan 2. paragrafoan aipatutako datu bereziki babestuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da eragiten zaionaren berriazko idatzizko baimena izatea; dena dela, ez da baimen hori behar izango, baldin eta, eskuratzeko eskaera egin baino lehen, eragiten zaion horrek datuak ageri-agerian ezagutzera eman baditu.

Informazioak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikuluan 3. paragrafoan aipatutako datu bereziki babestuak edo arau-hausleari ohartarazpen publikorik ez dakarkioten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak baditu,

informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da eragiten zaionaren berariazko baimena edukitzea edo lege-mailako arauen baten babesa izatea.

2. Oro har, organoaren antolamendu, funtzionamendu edo jarduera publikoari buruzko identifikazio-datu hutsak jasotzen dituen informazioa eskuratzeko baimena emango da, salbu eta ezin bada ezagutarazi, informazioa ezagutzera ematearen interes publikoari datu pertsonalak babestea edo Konstituzioak babestutako beste eskubideren bat gailentzen zaiolako.

3. Eskatutako informazioak ez duenean datu bereziki babesturik, eskaera jaso duen organoak informazioa eskuratzeko baimenduko du, informazioa ezagutarazteak daukan interes publikoa eta eskatutako informazioan ageri diren datuen jabeen eskubideak (bereziki datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea) behar bezala aztertu eta kontuan hartuta.

Erabaki hori hartzeko, organoak bereziki kontuan hartuko ditu irizpide hauek:

a) Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57. artikulua ezarritako epeak igarotzeak eragindakoei ahalik eta kalte txikiena eragitea.

b) Eskatzaileek justifikatzea beren eskaera eskubide batez baliatuta egiten dutela edo ikerlariak direla eta informazioa helburu historiko, zientifiko edo estatistikoekin eskuratu nahi dutela.

c) Eragindakoen eskubideei ahalik eta kalte txikiena egitea, dokumentuetan haiek identifikatzeko datuak bakarrik badaude.

d) Eragindakoen eskubideak ahalik eta gehien bermatzea, dokumentuko datuek haien intimitatean edo segurtasunean eragina izan badezakete, edo adingabekoei buruzkoak badira.

4. Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikatu beharko informazioa eskuratu aurretik datu pertsonalak bereizi badira eta, modu horretan, eragiten zaien pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada.

5. Datu pertsonalak babesteko araudia aplikatu beharko zaio informazioa eskuratzeko eskubidearen bidez eskuratutako datuen tratamenduari.

16. artikulua. *Informazioaren zati bat eskuratzeko.*

14. artikuluan aurreikusitako mugaren batek ez badio informazio guztiari eragiten, informazioaren zati bat –mugaketak eragindako informazioa kenduta– eskuratzeko baimena emango da, baldin eta horrek ez badakar informazioa distortsionatua edo zentzugabea izatea. Hala egiten bada, eskatzaileari jakinarazi beharko zaio informazioaren zati bat kendu egin dela.

2. *sezkioa. Informazio publikoa eskuratzeko eskubideaz baliatzea*

17. artikulua. *Informazioa eskuratzeko eskaera.*

1. Informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko prozesua eskabidea aurkezten denean hasiko da; eskabide hori informazioa duen administrazio-kontseilu edo entitatearen titularrari zuzendu beharko zaio. Zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio-ahala duten pertsona fisiko edo juridikoen esku dagoen informazioa denean, eskabidea pertsona horiek atxikita dauden eta 2.1 artikuluan aipatzen den administrazio, erakunde edo entitateari zuzenduko zaio.

2. Eskabidea honako hauek egiaztatzeko aukera ematen duen bitartekoren baten bidez aurkeztuko da:

- Eskatzailearen nortasuna.
- Eskatzen den informazioa.
- Harremanetarako helbidea, ahal bada elektronikoa, jakinarazpenak egiteko.
- Hala badagokio, eskatutako informazioa zein modalitatetan jaso nahi den.

3. Eskatzaileak ez du arrazoitu beharko zergatik eskuratu nahi duen informazioa. Hala eta guztiz ere, informazio hori eskatzeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu, eta, ebazpena emateko, kontuan hartu ahal izango dira. Hala eta guztiz ere, eskaera ez arrazoitzeak ez du berez eskaera ezestea eragingo.

4. Eskatzaileak administrazioa kokatuta dagoen lurraldeko edozein hizkuntza ofizialetan zuzendu ahal izango zaizkio administrazio publikoari.

18. artikulua. *Eskabideak ez onartzeko kausak.*

1. Ez dira izapidetzeko onartuko, ebazpen arrazoitu bidez, honako eskabide hauek:

a) Egiteko bidean den informazioari edo argitarapen orokorrerako bidean den informazioari buruzkoak.

b) Informazio osagarriari edo laguntzarako informazioari buruzkoak; esate baterako, halako informazioetat hartzen da, oharretan, zirriborroetan, iritzietan, laburpenetan, barne komunikazio eta txostenetan edo organo edo erakunde administratiboen arteko komunikazio eta txostenetan jasotakoa.

c) Hedatzeko, aldez aurretik, berriro prestatzea behar duten informazioari buruzkoak.

d) Eskumena nork daukan ez dakigunean, informazioa ez daukan organo bati zuzendutakoak.

e) Argi eta garbi errepikakorrak direnak edo neurritz kanpokoak direnak, lege honen gardentasun helburuarekin justifikatu ezin direnak.

2. Eskabidea ez bada onartzen aurreko d) letran adierazitako kausa dela eta, ez onartzea erabakitzen duen organoak, ebazpenean, adierazi beharko du bere ustez nork daukan eskabideaz arduratzeko eskumena.

19. artikulua. *Izapideak.*

1. Eskabidea hartzailearen esku ez dagoen informazioari buruzkoa bada, hartzaileak subjektu eskumendunari bidaliko dio, baldin eta nor den badaki, eta eskaera-egileari horren berri emango dio.

2. Eskabidean ez denean behar bezala identifikatzen informazioa, eskaera-egileari eskatuko zaio zehaztu dezala hamar eguneko epean, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskabidean atzera egiten duela ulertuko dela eta ebazpena emateko epea eten egiten dela.

3. Eskatutako informazioak hirugarren batzuen eskubide edo interesei eragin badiezaieke, eta behar bezala identifikatuta badaude, hamabost eguneko epea emango zaie nahi dituzten alegazioak egiteko. Eskaera-egileari horren berri eman beharko zaio, eta, era berean, jakinaraziko zaio ebazpena emateko epea eten egiten dela harik eta alegazioak hartzen diren arte edo alegazioak aurkezteko epea igarotzen den arte.

4. Eskatzen den informazioa, eskabidearen hartzailearen esku egon arren beste batek egin edo sortu badu osorik edo nagusiki, eskabidea beste horri bidaliko zaio, berak erabaki dezan eman ala ez.

20. artikulua. *Ebazpena.*

1. Informazioa eskuratzeko baimena emateko edo ez emateko ebazpena, beraz, ebazpen hori emateko eskumena duen organoak eskabidea jaso eta gehienez hilabeteko epean jakinarazi beharko zaio eskatzaileari, bai eta eragiten zaien besteei, hala eskatzen badute.

Epe hori beste hilabetez luzatu ahal izango da, baldin eta eskatutako informazioaren bolumena edo konplexutasuna direla-eta beharrezkoa bada, eta aldez aurretik eskatzaileari jakinarazita.

2. Arrazoituak izango dira informazioa eskuratzeko ukatzen duten ebazpenak, zati bat eskuratzeko baimentzen dutenak edo eskatutako modalitatearen bidez barik beste modu batez eskuratzeko baimentzen dutenak eta hirugarren bat aurka azaldu arren eskuratzeko

baimentzen dutenak. Azken kasu horretan, berariaz adieraziko zaio interesdunari 22.2 artikuluko epea igarotakoan bakarrik eskuratuko dela informazioa.

3. Informazioa dagoen ala ez adierazte hutsak informazioa eskuratzeko mugetariko bat urratzea badakar, eskabidea ez onartzean horren berri emango da.

4. Ebazteko gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera ez dela onartzen ulertuko da.

5. Informazio publikoa eskuratzearen arloan emandako ebazpenen aurka errekurtsioa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioran, hartara eragotzi gabe 24. artikuluan aurreikusitako aukerako erreklamazioa jartzea.

6. Epe barruan ebazpena emateko betebeharra behin eta berriz ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da, ez-betetze horien erantzuleei arauetan aurreikusitako diziiplina-araubidea aplikatzeari dagokionez.

21. artikulua. *Informazio-unitateak.*

1. Titulu honen aplikazio-eremuan sartzen diren administrazio publikoek sistema batzuk ezarriko dituzte herritarren informazio-eskabideen kudeaketa beren barne-antolamenduaren funtzionamenduan integratzeko.

2. Estatuko Administrazio Orokorraren esparruan, zenbait unitate espezializatu izango dira, honako eginkizun hauekin:

- a) Lege honen I. tituluko II. kapituluaren adierazitako informazioa jaso eta hedatzea.
- b) Informazioa eskuratzeko eskabideak jaso eta izapidetzea.
- c) Eskatutako informazioa eskuratzeko behar diren barne-izapideak egitea.
- d) Informazioa eskuratzeko eskabideen izapidetzea zuzena den ikusteko jarraipena eta kontrola egitea.
- e) Informazioa eskuratzeko eskabideen erregistroa eramatea.
- f) Sarrien eskatzen den informazioa dagokion web orrian edo egoitza elektronikoan eskuragarri egon dadin ziurtatzea.
- g) Edukien mapa bat eguneratuta izatea, organoaren esku dauden informazio-mota desberdinak identifikatuta egon daitezen.
- h) Lege honetako xedapenak zuzen aplikatzeko beharrezkoak diren guztiak.

3. Titulu honen aplikazio-eremuan sartzen diren gainontzeko erakundeek argi eta garbi identifikatuko dute zein den eskuratzeko eskabideez arduratzeko eskumena duen organoa.

22. artikulua. *Eskuratzeko formalizatzea.*

1. Ahal dela, bide elektronikoz eskuratuko da informazioa, salbu eta ezin denean hala eskuratu edo eskatzaileak berariaz beste modu batez eskuratzeko adierazi badu. Informazioa ezin bada eskuratu ebazpena jakinarazten den unean, gehienez hamar eguneko epean egon beharko da informazioa eskuratzeko moduan.

2. Hirugarren bat aurka azaldu bada, informazioa eskuratu ahal izango da, baldin eta eskuratzeko baimena eman bada eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko epea igarota errekurtsorik jarri ez bada edo jarrita ere informazioa jasotzeko eskubidea berretsiz ebatzi bada errekurtsio hori.

3. Informazioa dagoeneko argitaratua izan bada, zilegi izango da ebazpenean informazio hori non eskuratu daitekeen besterik ez adieraztea.

4. Informazioa eskuratzeko doanekoa izango da. Hala ere, kopiak emateak edo informazioa jatorrizkotik beste formatu batera eramateak zerbait ordaintzea eskatu beharra ekar dezake, Tasa eta Prezio Publikoen apirilaren 13ko 8/1989 Legean ezarritako eran edo, hala badagokio, aplikatzekoa den tokiko araudian edo autonomikoan ezarritako eran.

3. sekzioa. Aurkaratzeen araubidea

23. artikulua. Errekurtsuak.

1. Hurrengo artikuluan aurreikusten den erreklamazioa administrazio-errekurtsoen ordezkotzat hartuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, 2.1.f) artikuluan ezarritako organoek emandako ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua baino ezin izango da jarri.

24. artikulua. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari egindako erreklamazioak.

1. Informazioa eskuratzearen arloko ebazpen espres edo presuntziozko orenen aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari, aukeran eta administrazioarekiko auzibidean aurkaratu aurretik.

2. Erreklamazioa hilabeteko epean jarriko da, aurkaratutako ekintza jakinarazi eta biharamunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

3. Erreklamazioa izapidetzean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean errekurtsuen arloan xedatutakoa beteko da.

Informazioa eskuratzea ukatzeko arrazoia hirugarren batzuen eskubide edo interesak babestea bada, erreklamazioaren ebazpena eman aurretik, eragindakoei entzungo zaie, eskubidez komeni zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

4. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, eta epe hori igaro ondoren erreklamazioa ez dela onartu ulertuko da.

5. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren ebazpenak, datu pertsonalak bereizi ondoren, baliabide elektronikoen bidez eta erregelamenduz ezarritako eran argitaratuko dira, interesdunei jakinarazi ondoren.

Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren lehendakariak Herriaren Defendatzaileari jakinaraziko dizkio artikulua hau aplikatuz ematen dituen ebazpenak.

6. Erreklamazio horiek ebazteko eskumena Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari dagokio, salbu eta autonomia-erkidegoek eskumen hori berariazko organo bati ematen badiote, lege honen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritz.

II. TITULUA

Gobernu ona

25. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Estatuaren Administrazio Orokorren esparruan, honako hauei aplikatuko zaizkie titulu honetako xedapenak: gobernuko kideei, estatu-idazkariei eta Estatu Administrazio Orokorreko eta Estatu sektore publikoko erakundeetako gainontzeko goi-karguei –diren erakundeok zuzenbide publiko edo pribatukoak, Administrazio Orokorri lotutakoak edo haren mendekoak–.

Horretarako, goi-kargutzat joko dira interes-gatazken arloko araudia aplikatuz halakotzat hartzen direnak.

2. Titulu hau aplikatuko zaie arlo honetan aplikatzekoa den autonomia-erkidegoko edo tokiko araudiarekin bat etorritz goi-kargutzat hartzen diren goi-karguei edo parekoei, toki-erakundeetako gobernu-batzarretako kideak barne.

3. Titulu honetan jasotako xedapenak aurreko paragrafoetan aipatutako subjektuei aplikatzeak ez dio, ezein kasutan, haiek izan dezaketen hautetsi izaerari eragingo.

26. artikulua. *Gobernu onaren printzipioak.*

1. Titulu honen aplikazio-eremuan sartzen diren pertsonak, beren funtzioak betetzean, Espainiako Konstituzioan eta gainontzeko ordenamendu juridikoan xedatutakoa beteko dute, eta oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua bultzatuko dute.

2. Era berean, honako printzipio orokor hauetara egokituko dute beren jarduera:

a) Printzipio orokorrak:

1. Gardentasunez jokatu dute gai publikoak kudeatzean, eraginkortasun, ekonomia eta efizientzia printzipioekin bat etorri eta interes orokorrari erantzuteko helburuarekin.

2. Zerbitzu publikoaz arduratuz beteko dituzte beren eginkizunak, printzipio horien kontra doan edozein jokabide saihestuz.

3. Inpartzialtasun printzipioa errespetatuko dute, eta, beraz, interes partikular oren aurrean, irizpide independentea eta interes horrez bestekoa izango dute.

4. Beren eginkizunak betetzean, berdintasunezko eta inolako diskriminaziorik gabeko tratua ziurtatuko dute.

5. Behar besteko arretaz jokatu dute beren betebeharrak betetzean, eta kalitatea bultzatuko dute zerbitzu publikoak ematean.

6. Jokabide duina izango dute, eta herritarrak arreta bereziz tratatuko dituzte.

7. Beren erabaki eta jardueren eta zuzentzen dituzten organismoen erabaki eta jardueren erantzukizuna hartuko dute beren gain, hartara eragotzi gabe legez eska dakizkiekeen beste batzuk.

b) Jarduteko printzipioak:

1. Dedikazio osoz eta bateraezintasunak eta interes-gatazkek arautzeko araudia erabat errespetatuz beteko dute beren zeregina.

2. Beren eskumenak betetzean jakin dituzten egitate edo informazioei dagokienez, behar den zuhurtiaz jokatu dute.

3. Arauz kanpoko jokabideren baten berri izanez gero, eskumena duten organoei jakinaraziko diete.

4. Boterea zertarako jaso duten, horretarako baino ez dituzte gauzatuko indarrean den araudiak ematen dizkieten botereak, eta interes publikoa edo administrazioen ondarea arriskuan jar dezakeen ekintzak saihestuko dituzte.

5. Ez dira beren eginkizunekin bateraezinak diren egoera, jarduera edo interesetan inplikatu, eta ez dute esku hartuko, baldin eta tartean beren objektibotasunari eragin diezaiokeen kausaren bat badago.

6. Ez dute berentzat oparirik onartuko, baldin eta opariok ohiko erabilera edo erabilera soziala edo kortesiazkoa gainditzen badute, eta ez dute onartuko abantaila-egoeraren batean eskainitako zerbitzurik edo mesederik, baldin eta horrek baldintzatu egin baditzake beren eginkizunak betetzeko orduan. Garrantzi instituzional handiagoa duten oparien kasuan, dagokion administrazio publikoaren ondareari gehituko zaizkio.

7. Gardentasunez beteko dituzte beren eginkizunak.

8. Baliabide publikoak behar bezala kudeatu, babestu eta gordeko dituzte, eta ezin izango dituzte erabili aplikatzekoa den araudiak onartzen dituenetatik kanpo dauden jardueretarako.

9. Ez dute Administrazioan daukaten posizioa erabiliko abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko.

3. Artikulu honetan ezarritako printzipioei jarraituz interpretatu eta aplikatuko da titulu honetan araututako zehapen-araubidea.

27. artikulua. *Interes-gatazken arloko arau-haustek eta zehapenak.*

Bateraезintasunen arloko arauak edo titulu honen esparruan daudenek egin behar dituzten aitortpenak arautzen dituztenak ez betetzea Estatuko Administrazio Orokorraren interes-gatazkei buruzko araudian xedatutakoarekin bat etorritik zehatuko da; eta, gainontzeko administrazioen kasuan, aplikatzekoa zaien araudiarekin bat etorritik.

28. artikulua. *Ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren alorreko arau-haustek.*

Arau-hauste oso larriak izango dira jokabide hauek, errua denean tartean:

a) Funts publikoak administratzean, alkantzea eragitea, jokabidea ez bada hurrengo letretan jasotzen diren tipoetako batean ere sartzekoa.

b) Ogasun publikoaren baliabideak eta gainontzeko eskubideak administratzean ez betetzea haien likidazioa, bilketa edo altxorrean sartzea arautzen duten xedapenak.

c) Gastuak konprometitzea, obligazioak aitortzea eta ordainketak agintzea, hori egiteko behar besteko krediturik izan gabe edo azaroaren 26ko 47/2003 Aurrekontu Lege Orokorrean xedatutakoa hautsiz edo Aurrekontuei buruzko Legean edo aurrekontuen gainean aplikatzekoa den beste araudiren batean xedatutakoa hautsiz.

d) Gastuen, obligazioen edo ordainketen alde aurreko kontu-hartze izapidea ez egitea, baldin eta hori aginduzkoa bada, edo kontu-hartzaitzaren eragozpen etengarrien aurrean aurrekontuen araudian arautzen den desadostasunak ebazteko prozedura ez betetzea.

e) Aurrekontu Lege Orokorraren 78. eta 79. artikuluetan (47/2003 Legea, azaroaren 26koa) adierazitako funtsen inbertsioa, edo, bestela, Estatuko Administrazio Orokorrak besteko administrazioetan haren parekoa den aurrekontu-araudian adierazitako funtsen inbertsioa ez justifikatzea.

f) Aurrekontuan aurreikusitakoaren gainetik lortutako diru-sarrerak oso-osorik zor publikoa gutxitzera bideratzeko betebeharra ez betetzea, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta aurrekontuko superabita zorpetze garbia gutxitzera bideratzeko betebeharra ez betetzea, aipatutako legearen 32. artikuluan ezarritako eran.

g) Kreditu-eragiketak eta zor jaulkipenak egitea behar den baimena izan barik, edo baimena lortuta ere, baimenean ezarritakoa betetzen ez denean, edo apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan, Autonomia-erkidegoen Finantzaketari buruzko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoan eta Tokiko Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginean (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) ezarritako mugak gainditzen direnean.

h) Ez betetzeko arriskua saihesteko beharrezkoak diren neurriak epe barruan ez hartzea, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 19. artikuluan ezarritako ohartarazpena egin denean.

i) Lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzea edo administrazio publiko bati diru-laguntza ematea, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 20.3 artikuluan ezartzen den Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren aldeko txostena izan gabe.

j) Plan ekonomiko-finantzarioa edo berronkatze plana ez aurkeztea edo martxan ez jartzea, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 23. artikuluekin bat etorritik.

k) Aurrekontuen arloko araudian eta araudi ekonomiko-finantzarioan ezarritako argitaratze-betebeharrak edo informazioa emateko betebeharrak ez betetzea, baldin eta, azken kasu horretan, errekerimendua izan bada.

l) Desbideratzea ez justifikatzea, edo neurri berriak ez sartzea plan ekonomiko-finantzarioan edo berronkatze planean, baldin eta hori egiteko eskatu bazaio, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 24.3 artikuluekin bat etorritik.

m) Kasuan-kasuan, plan ekonomiko-finantzarioetako eta berronkatze planetako neurriak, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 21. eta 22. artikuluetan ezarritakoak, ez hartzea.

n) Kredituak ezin xedatzeko erabakia onartzea edo gordailua ez eratzeta, baldin eta hori egiteko eskatu bada (apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 25. artikuluan ezarritako neurriak dira).

ñ) Kredituak ezin xedatzeko erabakia onartzea edo gordailua ez eratzeta edo, Gobernuaren errekerimendua izan denean, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 26.1 artikuluan ezarritakoa, Adituen Batzordeak proposatutako neurriak ez betetzea.

o) Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 26.1 artikuluan ezarritako neurriak betetzeko Gobernuak emandako jarraibideak ez betetzea.

p) Kontuak emateko betebeharrak, azaroaren 26ko 47/2003 Aurrekontu Lege Orokorraren 137. artikuluan edo aplikatzekoa den beste aurrekontu-araudiren batean araututakoa, ez betetzea.

29. artikulua. *Diziplinazko arau-hausteak.*

1. Arau-hauste oso larriak dira:

a) Beren eginkizunak betetzean, Konstituzioa eta autonomia-erkidegoetako eta Ceuta eta Melillako hirietako autonomia-estatutuak errespetatzeko beharra ez betetzea.

b) Honako arrazoi hauetakoren batengatik diskriminazioa dakarten jarduerak: arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo orientazio sexuala, hizkuntza, iritzia, sorlekua edo bizilekua, sexua edo beste edozein gorabehera pertsonal edo sozial. Era berean, arau-hauste oso larriak dira arraza edo jatorri etnikoan, erlijioan edo sinesmenetan, desgaitasunean eta adinean edo orientazio sexualean oinarritutako jazarpenak eta jazarpen moralak, sexualak eta sexuan oinarritutakoak.

c) Administrazioari edo herritarrei kalte handiak ekar diezazkieketen eta argi eta garbi legez kontrako diren akordioak hartzea.

d) Karguagatik edo eginkizunengatik lortzen duten edo lortu izan duten dokumentazioa edo informazioa bidegabeki argitaratu edo erabiltzea.

e) Sekretu ofizialak zaintzean zabarkeriaz jokatzeta, legez izendatutako edo hala sailkatutako sekretu ofizialak badira, eta, jokabide horren eraginez, argitaratu egin badira edo bidegabeki hedatu edo jakin badira.

f) Lanpostuari berez dagozkion funtsezko eginkizunak edo agindutako eginkizunak nabarmen ez betetzea

g) Inpartzialtasuna haustea, edozein mota eta eremutako hauteskunde-prozesutan eragina izateko eman zaizkion ahalmenak erabiliz.

h) Goi-kargu izateaz baliatzea, norberarentzat edo inorentzat bidegabeki onura bat lortzeko.

i) Askatasun publikoek eta eskubide sindikalez baliatzeari oztopoak jartzea.

j) Grebarako eskubidea askatasunez erabiltzea eragoztera bideratutako ekintzak gauzatzea.

k) Laneko jazarpena.

l) Arau-hauste larri bat egitea, baldin eta egilea aurreko urtean bi arau-hauste larri egiteagatik zehatu badute eta zehapen horien aurka ezin bada errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean.

2. Arau-hauste larriak dira:

a) Agintekeria kargua betetzean.

b) Administrazio-prozedura batean esku-hartzea, esku ez hartzeko kausetariko bat egonik tartean.

c) Argi eta garbi legez kontrako diren txostenak egin eta akordioak onartzea, Administrazioa edo herritarrak kaltetzen badituzte eta arau-hauste oso larriak ez badira.

d) Kargua dela-eta jakiten diren gaiei dagokienez, behar den isiltasuna ez gordetzea, Administrazioarentzako kaltea sortuz edo norberaren onerako erabiliz.

e) Bateriaezintasunen arloan, epeak edo prozedura arloko beste xedapen batzuk ez betetzea, horrek bateraezintasun-egoerari eustea ez dakarrenean.

f) Arau-hauste arin bat egitea, baldin eta egilea, aurreko urtean, bi arau-hauste arin egiteagatik zehatu badute eta zehapen horien aurka ezin bada errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean.

3. Arau-hauste arinak dira:

- a) Eragabeki jokatzeari nagusi, lankide edo mendekoei.
- b) Eginkizunak betetzean zabarkeriaz edo arduragabekiaz jokatzeari eta 26.2.b) artikuluan jasotako jarduteko printzipioak ez betetzea, horrek arau-hauste larria edo oso larria ez dakarrenean edo jokabide hori ez dagoenean beste arauen batean tipifikatuta.

30. artikulua. *Zehapenak.*

1. Arau-hauste arinak kargu hartuz zehatuko dira.
2. Arau-hauste larria egiteagatik, honako zehapen hauetakoren batzuk ezarriko zaizkio arau-hausteari:

- a) Araua ez duela bete adieraztea eta Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratzea.
- b) Kargu-uztearen kasuan, dagokion kalte-ordaina ez jasotzea, baldin eta kargu-uzteak kalte-ordaina balekar berekin.

3. Arau-hauste oso larrien kasuan, aurreko paragrafoan ezarritako zehapenak ezarriko dira betiere.

4. Arau-hauste oso larri bat egiteagatik zehatu direnak kargutik kenduko dira, baldin eta ordurako kargua utzi ez badute, eta, bost eta hamar urte bitarteko epean, ezin izango dira goi-kargudun postu bat edo pareko bat betetzeko izendatu, hurrengo paragrafoan ezarritako irizpideekin bat etorritik.

5. Arau-hauste oso larriak, larriak edo arinak egiteagatik ezarritako zehapenak ezartzean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 131.3 artikuluan jasotako irizpideak eta honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Arau-hausteari izaera eta garrantzia.
- b) Sortutako arriskuaren edo eragindako kaltearen larritasuna.
- c) Arau-haustea ekarri duten egintza edo ez-egiteen ondorioz lortutako irabaziak, hala badagokio.
- d) Egitateek kasuan kasuko ogasun publikoari ekarri dizkieten eragin kaltegarriak.
- e) Arau-haustea konpontzeari norberaren ekimenez ekin izana.
- f) Eragindako kalte edo galeren erreparazioa.

Zehapenak graduatzean, kontuan hartuko dira interes publikoari eragindako kalteak, jokabideak herritarrengan izan duen eragina eta, hala badagokio, jardura publiko bateraezinak betetzearen bidegabeko kopuruak hartu izana.

6. Arau-haustea delitu izateko modukoak direnean, Administrazioak Estatuko Fiskal Nagusiari jakinaraziko dizkio, eta prozedurarekin jarraitzeari utziko dio, harik eta agintaritzak judizialak prozesu penalari amaiera ematen dion ebazpena eman arte.

7. Ekintzak arau administratibo berezi batean arau-hauste gisa tipifikatuta daudenean, eskumena duen Administrazioari jakinaraziko zaizkio, dagokion zehapen-prozedura bideratu dezan, eta jarduketak eten egingo dira harik eta prozedura hori amaitu arte. Ez da araudi berezizat hartuko azaroaren 26ko 47/2003 Aurrekontu Lege Orokorra, 28. artikuluan ezarritako arau-hausteei dagokienez, eta aldi berean tramitatu ahal izango dira ondare-erantzukizuneko prozedura eta zehapen-prozedura.

8. Honako ondorio hauek izango dituzte, betiere, 28. artikuluan ezarritako arau-hausteei:

- a) Bidegabeki jasotako edo ordaindutako kopuruak itzuli beharra, hala badagokio.

b) Ogasun publikoari kalte-ordaina emateko beharra, azaroaren 26ko 47/2003 Aurrekontu Lege Orokorrean ezarritako eran.

31. artikulua. *Eskumena duen organoa eta prozedura.*

1. Ofizios emango zaio hasiera zehapen-prozedurari, eskumena duen organoak erabakita, bai bere kabuz edo bai goragokoaren aginduaren, beste organo batzuen eskaera arrazoituaren edo herritarren salaketaren ondorioz.

Berariaz horretarako instruitutako administrazio-prozeduran exijituko da erantzukizuna, hartara eragotzi gabe Kontu Auzitegiari egitateen berri ematea, hala badagokio, kontabilitate-erantzukizuneko prozedura ireki dadin.

2. Zehapen-prozedura irekitzeko organo eskuduna izango da:

a) Goi-kargua Gobernuo kide edo estatu-idazkari denean, Ministro Kontseilua, Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroak proposatuta.

b) Usteko arau-hausleak Estatuko Administrazio Orokorrean zerbitzura dauden pertsona aurreko letrakoez bestekoak direnean, Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroa.

c) Usteko arau-hausleak autonomia-erkidegoko edo tokiko administrazioaren zerbitzura dauden pertsonak badira, zehapen-prozedura irekitzeko agindua, prozeduraren helburu diren goi-karguek zerbitzuak eskaintzen dituzten autonomia-erkidegoetako edo toki-erakundeetako diziplina-araubidea aplikatuz funtzio horiek esleituta dituzten organoek emango dute.

3. Aurreko paragrafoko a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, dagozkion zehapen-prozedurak instruitzeko ardura Interes Gatazken Bulegoarena izango da. Eta c) lettran jasotako kasuan, prozedura instruitzea dagozkion autonomia-erkidegoko edo toki-erakundeetako diziplina-araubidea aplikatuz eskumena duen organoaren ardura izango da.

4. Zehapenak ezartzeko eskumena honako hauek izango dute:

a) Ministro Kontseiluak, goi-kargua Gobernuo kide edo estatu-idazkaria denean.

b) Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroak, arau-hauslea Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargua denean.

c) Prozedura autonomia-erkidegoetako edo toki-erakundeetako goi-karguen kontrakoa denean, prozeduraren helburu diren goi-karguek zerbitzuak eskaintzen dituzten autonomia-erkidegoetako edo toki-erakundeetako diziplina-araubidea aplikatuz funtzio horiek esleituta dituzten organoek izango dute eskumena, edo, hala badagokio, kasuan kasuko autonomia-erkidegoko gobernu-kontseiluak edo toki-erakundeetako gobernu-batzarraren osoko bilkurak.

5. Titulu honetan araututako zehapen-prozedura aplikatuz ematen diren ebazpenen aurka, errekurtoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

32. artikulua. *Preskripzioa.*

1. Titulu honetan ezarritako arau-hausteen preskripzio-epea bost urtekoa izango da arau-hauste oso larrietarako, hiru urtekoa arau-hauste larrietarako eta urtebetekoa arau-hauste arinetarako.

2. Arau-hauste oso larriak egiteagatik ezarritako zehapenak bost urte igarotakoan preskribatuko dira, arau-hauste larriak egiteagatik ezarritakoak hiru urte igarotakoan eta arau-hauste arinak egiteagatik ezarritakoak urtebeteko epean preskribatuko dira.

3. Aurreko paragrafoetan araututako preskripzio-epeak zenbatzeko orduan, bai eta epe horiek eteteko arrazoiak zehazteko orduan ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 132. artikuluan xedatutakoa beteko da.

III. TITULUA

Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua33. artikulua. *Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua*

1. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua eratzen da, organismo publiko gisa, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian xedatutako arteko organismo publiko gisa, hain zuzen. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari atxikitako organismo publikoa izango da.

2. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak berezko nortasun juridikoa izango du, eta jarduteko gaitasun osoa ere bai. Autonomia eta beregaintasun osoz jardungo da bere helburuak betetzeko orduan.

34. artikulua. *Helburuak.*

Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren xedea izango da jarduera publikoaren gardentasuna sustatzea, publikitate-betebeharrak betetzen direla zaintzea, informazio publikorako irispidea izateko eskubidearen erabilera babestea eta gobernu onaren xedapenak betetzen direla bermatzea.

35. artikulua. *Osaera.*

Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak honako organo hauek izango ditu:

- a) Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Batzordea.
- b) Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluko lehendakaria; Batzordeko burua ere izango da.

36. artikulua. *Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Batzordea.*

1. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Batzordeak, bestalde, lege honek ematen dizkion eskumen guztiak baliatuko ditu, bai eta lege hau garatzeko arauak ematen dizkieten eskumenak ere.

2. Hona nortzuk izango dituen kide Batzordeak:

- a) Lehendakaria.
- b) Diputatu bat.
- c) Senatari bat.
- d) Kontuen Auzitegiko ordezkari bat.
- e) Herriaren Defendatzailearen ordezkari bat.
- f) Datuak Babesteko Espainiar Agentziako ordezkari bat.
- g) Herri Administrazioen Estatu Idazkaritzaren ordezkari bat.
- h) Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentearen ordezkari bat.

3. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren Batzordeko kide izateko ez da beharko dedikazio eskusiborik, eta ez du izango ordainsaririk, hurrengo artikuluan adierazitakoa salbu.

4. Gutxienez urtean behin, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Batzordeak deitu egingo die autonomia-erkidegoek beren eskumenak baliatuz sortu eta Batzordeak dituen antzeko eginkizunak dituzten organismoetako ordezkariari. Aukeran izango da Toki Administrazioiko ordezkari bati ere bilera horretarako deialdia egitea; Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak proposatutako ordezkaria izan beharko du.

37. artikulua. *Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluko lehendakaria.*

1. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluko lehendakaria bost urterako izendatuko da errege-dekretuz, kargua berritzeko aukerarik gabe; Ogasun eta Herri Administrazio ministroak proposatuko du hautagaia, ospe aitortuko eta gaitasun profesionaleko pertsonen artean hautatuta, eta kargurako proposatutako pertsona horrek, aldez aurretik, Diputatuen Kongresuko dagokion batzordearen aurrera agertu beharko du. Kongresuak, batzorde eskudunaren bitartez, gehiengo osoak onartutako erabakiarekin, berretsi egin beharko du proposatutako hautagaiaren izendapena, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epearen barruan.

2. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluko lehendakariak agintaldia amaitzean utziko du kargua; berak hala eskatzen duenen ere utz dezake; baina Gobernuak ere utzarazi ahal dio, Ogasun eta Herri Administrazio ministroak dagokion prozedura instruitu ondoren, betebeharren huts egite larriagatik, eginkizuna betetzeko ezintasun iraunkoragatik, gerora sortutako bateraezintasunagatik edo doluzko delituagatik ezarritako kondenagatik.

3. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluko lehendakariak 451/2012 Errege Dekretuan ezarritako ordainsariak jasoko ditu (451/2012 Errege Dekretua, martxoaren 5koa, enpresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-sistema arautzen duena).

38. artikulua. *Eginkizunak.*

1. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak honako eginkizun hauek izango ditu bere eginkizunak betetzeko:

- a) Gomendioak onartzea, lege honetan jasotako betebeharrak hobeto betetzeko.
- b) Aholkularitzan jardutea gardentasunaren, informazio publikorako irispidearen eta gobernu onaren arloetan.
- c) Aginduzko txostenak egitea Estatuko araugintza-proiektuen inguruan, baldin eta lege hau garatzen badute edo lege honen objektuarekin zerikusia badute.
- d) Lege hau nola aplikatzen den ebaluatzea. Horretarako, memoria bat egingo du urtero-urtero, eta ezarritako betebeharrak nola bete diren azaltzen duen informazioa jaso beharko da bertan; memoria hori Gorte Nagusiei aurkeztuko zaie.
- e) Gardentasunaren, informazio publikorako irispidearen eta gobernu onaren arloetan gomendio, gida-lerro eta praktika onetarako arauen zirriborroak egin daitezen sustatuko du.
- f) Prestakuntza- eta sentikortze-jarduerak sustatuko ditu, lege honek arautzen dituen gaien inguruko ezagutza handiagoa izan dadin.
- g) Berari dagozkion gaietan antzeko organoekin lankidetzan aritzea
- h) Lege- edo erregelamendu-mailako arau batek esleitzen dizkion gainerakoak.

2. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluko lehendakariak honako eginkizun hauek beteko ditu:

- a) Lege honetan jasotako betebeharrak era berdinean interpretatzeko irizpideak onartzea.
- b) Lege honetako 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, I. tituluko II. kapituluan jasotzen diren publikitate-betebeharrak betetzen direla zaintzea.
- c) Lege honetako 24. artikulua aplikatuz aurkezten diren erreklamazioak aztertzea eta haiei buruz erabakitzea.
- d) Informazio-eskaerak tramitatzeko eta haiei buruz erabakitzeke arduraren duten organoek kontsulta egiten diotenean –kontsulta egitea aukerakoa dutelarik–, erantzuna ematea.
- e) Lege honetako II. tituluaren jasotzen den zehapen-prozedura hasteko eskatzea. Organo eskudunak, hala balegokio, arrazoitu egin beharko du zergatik erabaki duen prozedura ez hastea.

- f) Urteko aurrekontuaren aurreproiektua onartzea.
- g) Lege- edo erregelamendu-mailako arau batek esleitzen dizkion gainerakoak.

39. artikulua. *Araubide juridikoa.*

1. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua lege honen pean jardungo da, bai eta beste arau hauen pean ere.

a) Aurrekontu Lege Orokorrean aplikatzekoak zaizkion xedapenak (47/2003 Legea, azaroaren 26koa). Urtero-urtero, aurrekontu-aurreproiektu bat egingo du, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak ezarritako egiturarekikoa, eta Gobernuari aurkeztuko, hark Estatuaren Aurrekontu Orokorretan sar dezan.

b) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

c) 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa, eta, hark xedatu gabekoetan, ondare-eskuratzei dagokien zuzenbide pribatua.

d) 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoa, eta Estatuako Administrazio Orokorreko funtzionarioei langile-baliabideen arloan aplikatzekoak zaizkien gainerako arauak.

e) 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, bai eta, eginkizun publikoak betetzen ari denean, lege honetan xedatu gabekoetan, aplikatzekoa zaion araudia.

2. Ministro Kontseiluak, errege-dekretu bidez, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren estatutua onartuko du, eta hantxe ezarriko haren antolamendua, egitura eta funtzionamendua, bai eta hark bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren gainerako alderdi guztiak ere.

3. Oro har, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluko lanpostuak funtzionario publikoek beteko dituzte 7/2007 Legean (7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena) eta Estatuako Administrazio Orokorreko langileei aplikatzekoak zaizkien funtzio publikoko arauetan ezarritakoaren arabera. Lan-kontratuko langileek beteko dituzten lanpostuak Estatuako Administrazio Orokorreko funtzio publikoko araudiari egokitu beharko zaizkio. Era berean, Estatuako Administrazio Orokorrean lanpostuak betetzeko ezarritako prozeduraren bitartez Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluan zerbitzuak ematen hasten diren langileak funtzionario edo lan-kontratuko langile izango dira gero ere, aplikatzekoa den legediaren arabera.

4. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak honako ondasun eta ekonomia-baliabide hauek izango ditu bere helburuak betetzeko:

- a) Estatuaren aurrekontu orokorren kontura, urtero esleituko zaizkion kopuruak.
- b) Bere ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak eta horietatik sortutako produktu eta errentak.
- c) Legez esleitu ahal zaizkion beste batzuk.

40. artikulua. *Gorte Nagusiekiko harremanak.*

Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak, urtero-urtero, memoria bat egingo du bere jardueri buruz eta lege honetan ezarritako xedapenak nola bete diren azaltzeko, eta Gorte Nagusiei helaraziko die memoria hori. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua dagokion Batzordearen aurrera agertuko da memoria horren berri ematera, hala eskatzen zaion guztietan, hain zuzen.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: arauketa bereziak.*

1. Abian den administrazio-prozedura batean interesdun direnek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio-prozedura arautuko duen araudia.

2. Araudi espezifiko baten pean izango dira, lege honetan ezarritako araudia osagarri dutela, informazioa eskuratzeko araubide juridiko espezifikoak duten gaiak.

3. Hala, bada, lege hau aplikatuko da ingurumen-arloko informazioa eta berrerabiltzeari buruzko informazioa eskuratzeari dagozkion gaietan, bi horiei buruzko arauetan xedatu gabeko kontu guztietan.

Bigarren xedapen gehigarria. *Arauk berrikustea eta sinplifikatzea.*

1. Estatuko Administrazio Orokorak arauak berrikusteari eta sinplifikatzeari ekingo dio, eta, hala badagokio, bere ordenamendu juridikoan arauak bateratzeari. Horretarako, dagozkion azterketak egin beharko ditu, zaharkiturik geratu diren arauak indargabetu eta, hala badagokio, aldaketak edo berrikuntzak egiteko beharrik badagoen zehaztu, edo testu bategin bat egitea proposatu, baliatu beharreko eskumenari eta prozedurari buruz Konstituzioan eta legeetan ezarritako xedapenekin bat etorri, betiere eragiten zaien arauen mailaren arabera.

2. Horretarako, Gorteekiko Harremanetarako Estatu Idazkaritzak arauen kalitate- eta sinplifikazio-plan bat egingo du, eta gainerako ministerioekin arauak berrikusteko eta sinplifikatzeko prozesua koordinatzeko ardura izango du.

3. Ministerio bateko eta besteko Idazkariordetza Orokor Teknikoek nork bere eskumen-eremuaren barruan gauzatuko dute arauak berrikusteko eta sinplifikatzeko prozesua, eta aukeran izango dute nork bere jarduera autonomia-erkidegoetako organo eskudunekin koordinatzea, baldin eta, haiek, nork bere eskumenak baliatuz eta administrazio-lankidetzako printzipioa aplikatuz, nork bere ordenamendu juridikoa berrikusteko prozesu bat gauzatu badute.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Zuzenbide publikoko korporazioak.*

Zuzenbide publikoko korporazioek, lege honetako I. tituluan xedatutako obligazioak betetzeko, lankidetzak-hitzarmenak egin ahal izango dituzte dagokion herri-administrazioarekin, edo, hala balegokio, bere jarduera-eremu zehatzean ordezkariak duen organismoarekin.

Laugarren xedapen gehigarria. *Erreklamazioa.*

1. Lege honen 24. artikuluan xedatutako erreklamazioari buruzko ebazpena, autonomia-erkidegoetako administrazioek eta haien sektore publikoek eta haien lurralde-eremuetan dauden toki-erakundeek emandako ebazpenen kasuetan, autonomia-erkidegoek zehaztutako organo beregainari dagokio.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, erreklamazio horiek direla-eta legegintza-biltzarrek nahiz Estatu Kontseilu, Kontseilu Ekonomiko eta Sozial, Kontuen Auzitegi eta Herriaren Defendatzailearen kideko erakundeek emandako ebazpenen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtoa baizik ezingo da aurkeztu.

2. Autonomia-erkidegoek Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari esleitu ahal izango diote 24. artikuluan xedatutako erreklamazioari buruzko ebazpena emateko eskumena. Horretarako, dagokion hitzarmena egin beharko dute Estatuko Administrazio Orokorarekin, eta, hitzarmen horretan, autonomia-erkidegoak eskumen horiek bere gain hartzeak eragindako gastuak nola ordainduko dituen xedatuko da.

3. Autonomia-estatutua duten hiriek zeinek bere organo beregainak izendatu ahal izango dituzte, edo, bestela, eskumena esleitu Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari, aurreko paragrafoan aipatutako baldintzen arabera hitzarmen bat eginez.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Datuak Babesteko Espainiako Bulegoarekiko lankidetza.*

Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak, biek elkarrekin, lege honetako 15. artikuluan jasotako arauak bakoitzaren esparruan aplikatzeko irizpideak onartuko dituzte, bereziki informazioa eskuratzeko orduan interes publikoa neurtzeari dagozkionak eta informazio horrek interesdunei buruz izan ditzakeen datuak direla-eta haien eskubideak bermatzeari dagozkionak, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organiko honetan xedatutakoaren arabera.

Seigarren xedapen gehigarria. *Errege Etxearen gaineko informazioa.*

Gobernuko Presidentziaren Idazkaritza Nagusiak izango du eskumena Errege Etxearen esku dagoen informazioa eskuratzeko eskabidea egiteko prozedura tramitatzeke, bai eta organo horrek lege honetako xedapenak aplikatzean sortzen den beste edozein auzi ebazteko ere.

Zazpigarren xedapen gehigarria.

Gobernuak prestakuntza-plan bat onartuko du gardentasunaren arloan, Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario eta langile guztientzat, eta, horrekin batera, herritarrentzako informazio-kanpaina bat abiaraziko du. Gobernuak Estatuko sektore publikoa ere sartuko du Erantzukizun Sozial Korporatiboko Plan Nazionalan.

Zortzigarren xedapen gehigarria.

Diputatuen Kongresuak, Senatuak eta autonomia-erkidegoetako legebiltzarrek, zeinek bere erregelamenduaren bidez, lege honetako xedapenak kasuan-kasuan nola aplikatu behar diren arautuko dute.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Herri Administrazioen Prozedura Erkideari buruzkoa. Hona nola:

Bat. Hona hemen nola geratzen den idatzita 35 h) artikulua:

«h) Informazio publiko, artxibo eta erregistroetara jotzeko.»

Bi. Honela geratuko da idatzita 37 artikulua:

«37. artikulua. *Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea.*

Herritarrek eskubidea dute informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izateko, Konstituzioan eta 19/2013 Legean (19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzkoa) eta aplikatzekoak diren gainerako legeetan ezarritako baldintzen arabera.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Gobernuko kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguen arteko interes-gatazkek arautzeari buruzko Legea aldatzea (5/2006 Legea, apirilaren 10ekoa).*

Aldatu egiten da 5/2006 Legea, apirilaren 10ekoa, Gobernuko kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguen interes-gatazkek arautzeari buruzkoa. Hona nola:

Hona nola geratzen den idatzita 14. artikulua 4. paragrafoa:

«4. Gobernuko kideek eta estatu-idazkariek eta lege honetako 3. artikuluan xedatutako gainerako goi-karguek ondasun eta ondare-eskubideei buruz egindako

aitorpenen edukia Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, erregelamenduz ezarritako baldintzen arabera. Ondare-ondasunei dagokienez, goi-karguen ondare-egoerari buruzko aitorten bat argitaratuko da, baina ezabatu egingo dira ondasun horiek non dauden adierazten duten datuak, eta, betiere, babestu egingo dira haien titularren pribatutasuna eta segurtasuna.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Aurrekontu Lege Orokorra aldatzea (47/2003 Legea, azaroaren 26koa).*

Aldatu egiten da Aurrekontu Lege Orokorraren 136. artikulua 4. paragrafoa (47/2003 Legea, azaroaren 26koa). Hona nola geratzen den idatzita:

«4. Kontabilitateko printzipio publikoak aplikatu behar dituzten erakundeek eta haien kontuak merkataritza-erregistroan argitaratu beharrik ez duten gainerakoek honako hauek argitaratuko dituzte urtero Estatu Aldizkari Ofizialean: egoera-balantzea eta emaitza ekonomiko-ondarekoaren kontua, urteko kontuak osatzen dituzten gainerako egoeren laburpena eta kontu-ikuskaritzaren txostena. Ondorio horietarako, Estatu Administrazio Kontu-hartzailetza Nagusiak zehaztuko du argitaratu beharreko informazioaren gutxieneko edukia.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Estatu Administrazio Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legearen hamargarren xedapen gehigarria aldatzea (6/1997 Legea, apirilaren 14koa).*

Aldatu egiten da 6/1997 Legearen hamargarren xedapen gehigarriaren 1. paragrafoa (6/1997 Legea, apirilaren 14koa, Estatu Administrazio Orokorraren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzkoa). Hona nola geratzen den:

«1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala, Segurtasun Nuklearreko Kontseilua, unibertsitate eskualdatu gabeak, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa, Kanariar Gune Bereziko Partzuergoa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua, Pradoko Museo Nazionala eta Centro de Arte Reina Sofia Museo Nazionala zein bere legedi espezifikoren pean egongo dira, eta, ordezko eta osagarri, lege honen pean.»

Azken xedapenetako bosgarrena.

Gobernuak neurriak ezarriko ditu Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari atxikitako baliabide teknikoaren eta giza baliabideen erabilera optimizatzeko.

Azken xedapenetako seigarrena. *Kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko Legea aldatzea (10/2010 Legea, apirilaren 28koa).*

Aldatu egiten da 10/2010 Legea, apirilaren 28koa, kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzekoa. Hona nola:

Bat. 2. artikulua 5. paragrafo berria erantsen zaio, honako hau dioena:

«5. Airera berotegi-efektuko gasen isuriak egiteko eskubideen erregistroaren estatuko administratzaileari (1/2005 Legea, martxoaren 9koa, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketaren araubidea arautzen duena), aplikatzekoak izango zaizkio Lege honetako III. eta IV. kapituluetan jasotzen diren informazioko eta barne-kontrolko obligazioak.»

Bi. Beste paragrafo bat, 6.a, gehitzen zaio 7. artikulua. Hona hemen:

«6. Baimena eman ahal izango da, erregelamenduz, zenbait neurri ez aplikatzeko, kopuru jakin bat –dela bakuna, edo dela hainbat alditan zehar metatua–

gainditzen ez duten noizbehinkako eragiketetako dokumentuei buruzko ardua eta kontserbazioa dela-eta emandakoak.»

Hiru. Hona hemen 9. artikulua beste era batean idatzirik:

«9. artikulua. *Behar adinako arretari buruzko neurri sinplifikatuak.*

Behartuta dauden subjektuek, erregelamenduz ezarritako kasuetan eta baldintzen arabera, behar adinako arretari buruzko neurri sinplifikatuak ezarri ahal izango dituzte kapitalak zuritzeari edo terrorismoa finantzatzeari buruz arrisku txikia dakarten bezero, produktu eta eragiketak direla-eta.»

Lau. Hona hemen 10. artikulua beste era batera idatzirik:

«10. artikulua. *Behar adinako arretari buruzko neurri sinplifikatuak aplikatzea.*

Behar adinako arretari buruzko neurri sinplifikatuaren aplikazioa graduatu egingo da arriskuaren arabera, honako irizpide hauei jarraituz:

a) Erregelamenduz ezarritako kasuetako bezero, produktu edo eragiketa bat dela-eta behar adinako arretaren neurri sinplifikatuak ezarri behar direnean, behartuta dauden subjektuek, aldeztatik, egiaztatu egin beharko dute arrisku txikia dakartela kapitalak zuritzeari edo terrorismoa finantzatzeari buruz.

b) Behar adinako arretari buruzko neurri sinplifikatuak aplikatu behar badira, neurri horiek arriskuaren arabera izan beharko dira. Behartutako subjektuek ez dituzte aplikatuko behar adinako arretari buruzko neurriak, edo utzi egingo diote aplikatzeari, bezero, produktu edo eragiketa batek kapitalak zuritzeari edo terrorismoa finantzatzeari buruz arrisku txikirik ez dakarrela iritzi bezain laster.

c) Behartutako subjektuek, beti, zaindu egin beharko dute, behar besteko jarraitasunez, ea 17. artikuluan ezarritakoaren arabera azterketa berezia behar duen eragiketarik gauzatzen ote den.»

Bost. Hona hemen 14. artikulua beste era batera idatzirik:

«14. artikulua. *Erantzukizun publikoarekiko pertsonak.*

1. Behartutako subjektuek, erantzukizun publikoarekiko pertsonen negozio-harremanetan edo -eragiketetan, artikuluko honetan ezarritako behar adinako arretako neurri indartuak aplikatuko dituzte.

Erantzukizun publikoarekiko pertsonak direla joko da:

a) Hautaturik, izendaturik edo inbestiturik Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan edo hirugarren herrialdeetan eginkizun publikoak betetzen ari direnak edo bete dituztenak, hala nola estatuburu, gobernuburu, ministro edo gobernuetako beste kide batzuk, estatu-idazkari edo -idazkariordeak, parlamentariak; auzitegi gorenako, konstituzio-auzitegiak eta beste goi-erakunde judizial batzuetako magistratuak, baldin eta, haien erabakien kontra, salbuespenezko egoeretan izan ezik, ezin bada arruntean errekurtsorik aurkeztu, hor sartzeko direlarik ministerio fiskaletako haien pareko kideak, auzitegi-kontuetako kideak edo banku zentralako kontseilariak; enbaxadore eta negozio-arduradunak; indar armatuetako goi-mailako militarrik; enpresa publikoetako administrazio-, kudeaketa- edo gainbegiratze-organoetako kideak.

b) Espainiako estatuan eginkizun publiko garrantzitsuak betetzen dituzten edo bete izan dituzten pertsonak, hala nola Estatuko Administrazio Orokorreko interes-gatazken gaineko araudiak xedatutakoaren arabera goi-karguak; estatuko parlamentariak eta Europako Parlamentukoak; Auzitegi Goreneko eta Konstituzio Auzitegi magistruak, Ministerio Fiskalean haien pareko diren kideak barne;

Kontu Auzitegiko eta Espainiako Bankuko kontseilariak; enbaxadoreak eta kanpo harremanetako negozio-arduradunak; indar armatuetako goi-mailako militarrek; nazioarteko erakunde bateko zuzendari, zuzendari ondoko eta administrazio-kontseiluetako kideak, edo pareko eginkizunekikoak, Europar Batasuna ere nazioarteko erakundeen artekotzat jorik.

c) Halaber, erantzukizun publikoarekiko pertsonak direla joko da Espainiako autonomia-erkidegoen arloan eginkizun publikoak betetzen dituztenak edo bete dituztenak, hala nola presidentek eta kontseilariak eta gobernu-kontseiluetako gainerako kideak, bai eta autonomia-erkidegoetako goi-karguak eta diputatuak; eta, Espainiako toki-administrazioaren arloan, udalerrietako, probintzia-hiriburu- eta edo autonomia-erkidegoetako hiriburu- eta 50.000 biztanle- gorako toki-erakundeetako alkateak, zinegotziak eta gainerako goi-karguak, edo Espainiako sindikatu- eta enpresa-erakunde edo alderdi politikoetako goi-zuzendaritzako karguak.

Kategoria horietako baten ere ez dira sartuko maila ertainetako edo beheagoko mailetako enplegatu publikoak.

2. Hautaturik, izendaturik edo inbestiturik Europar Batasuneko gainerako estatu kideetan edo hirugarren estatu batean eginkizun publiko garrantzitsuak betetzen dituzten edo bete dituzten bezero edo egiazko titularrez den bezainbatean, behartutako subjektuek, behar adinako arretari buruzko neurri normalez gain, honako betebeharrak izango dituzte:

a) Arriskua kudeatzeko prozedura egokiak aplikatu beharko dituzte, bezeroa edo egiazko titularra erantzukizun publikoarekiko pertsona bat den edo ez zehaztearren. Prozedura horien barnean, bezeroak onartzeko berariazko politika bat -26.1 artikuluan aipatzen da- egon beharko da sartuta.

b) Zuzendaritza-maila hurrenekoaren baimena eskuratzea, gutxienez, negozio-harremanak hasteko edo haiei eusteko.

c) Ondarearen eta funtsen jatorria zehazteko neurri egokiak onartzea.

d) Negozio-harremana arreta handiagoarekin eta iraunkorarekin zaintzea.

3. Behartutako subjektuek, behar adinako arretari buruzko neurri normalak ez ezik, beste neurri batzuk ere ezarri beharko dituzte, arrazoizkoak, jakitearren eta baieztatzearren ea bezeroak edo egiazko titularrak artikuluko honen lehenbiziko paragrafoaren b) eta c) idatz-zatietan ezarritako eginkizunetakoren bat betetzen duen edo bete duen.

Arrazoizko neurritzat joko da behar adinako arretaren prozesuan eskuratutako informazioa berrikustea kasu bakoitzean diren arrisku-faktoreen arabera.

Arrisku handiagoko duten negozio-harremanetan, behartutako subjektuek aurreko paragrafoko b), c) eta d) idatz-zatietan xedatutako neurriak aplikatuko dituzte.

4. Behartutako subjektuek erantzukizun publikoarekiko pertsonen senideei eta hurrekoei aplikatuko dizkiete aurreko bi paragrafoetan ezarritako neurriak.

Artikulu honetan ezarritakoetarako, senitartekotzat joko da ezkontidea delako edo maitasun-harreman kidekoa duelako harreman egonkorra duen pertsona, eta senitartekotzat joko dira halaber gurasoak eta seme-alabak, eta ezkontideak direlako edo maitasun-harreman kidekoa dutelako seme-alabekin lotura duten pertsonak.

Hurrekotzat joko da erantzukizun publikoarekiko pertsona batekin batera tresna baten edo pertsona juridiko baten titularitatea edo kontrola duela nabarmena den pertsona fisiko oro, edo beraren onurarako eratu dela nabarmena den tresna edo pertsona juridiko baten titularitatea edo kontrola duena.

5. Behartutako subjektuek arrazoizko neurriak ezarriko dituzte, jakitearren eta baieztatzearren ea bizitza-aseguru baten polizako onuraduna, eta, hala balegokio, onuradunaren egiazko titularra erantzukizun publikoarekiko pertsona bat ote den

kontratuaren ondoriozko prestazioa ordaindu aurretik edo polizak ematen dituen berreskuratzeko, aurreratze edo pignoratzeko eskubideak baliatu aurretik.

Arrisku handienak identifikatzeko orduan, subjektu behartuek, behar den adinako arretaren neurri normalez gain, honako betebeharrak izango dituzte:

a) Zuzendaritza-maila hurrekoari jakinaraztea, gutxienez, ordaindu, berreskuratu, aurrerakina hartu edo pignoratu aurretik.

b) Negozio-harreman osoaren azterketa sakonagoa egitea polizaren titularrarekin.

c) Azterketa berezia egitea, 17. artikuluan jasotakoa, erabakitzearen ea badagokion aztarnaren jakinarazpena egitea 18. artikuluan arabera.

6. Baldin eta, aurreko paragrafoetan ezarritakoa bete beharra eragotzi gabe, 17. artikuluan ezarritako egoera suertatu delako, azterketa berezia egin behar bada, behartutako subjektuek neurriak ezarriko dituzte, egokiak, hautematearren ea Espainian herri-administrazioetako ordezkari-kargu publikoa edo goi-kargua izan duen inork edo haren senitarteko edo hurrekoek dena delako gertaera edo eragiketa horretan parte hartu duten edo ez.

7. Lege honetako 11. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, aurreko paragrafoetan aipatzen diren pertsonen beren eginkizun horiek betetzeari utzi diotenean, behartutako subjektuek, gero ere, artikuluan honetan xedatutako neurriak aplikatuko dituzte, beste bi urtez.»

Sei. Hona hemen 26. artikuluan 4. paragrafoa beste era batera idatzirik:

«4. Barne-kontrolko neurriak talde-mailan ezarriko dira, erregelamenduz ezarritako espezifikazioekin. Taldearen definiziorik ezean, Merkataritza-kodearen 42. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.»

Zazpi. Hona hemen 24. artikulua beste era batera idatzirik:

«42. artikulua. *Nazioarteko zehapen eta finantzazko kontraneurriak.*

1. Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren ebazpen bidez ezarritako finantza-zehapenak, terrorismoa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitu eta ezabatzeko eta suntsipen masiboko armen ugaltzea ezabatzeko eta eteteko ezarriak, nahitaez aplikatuko zaizkio edozein pertsona fisiko edo juridikori, Europako Erkidegoaren erregelamenduetan edo Ekonomia eta Lehiakortasun ministroak proposatuta Ministro Kontseiluak onartutako erabakian ezarritakoari jarraituz.

2. Europako Erkidegoko erregelamenduen zuzeneko eragina ezertan eragotzi gabe, Ministro Kontseiluak, Ekonomia eta Lehiakortasun ministroak proposatuta, finantzazko kontraneurriak ezartzea erabaki dezake kapitalak zuritzeko edo terrorismoa finantzatzeko edo suntsipen masiboko armen ugaltzea finantzatzeko arrisku handiagoak dakartzaten hirugarren herrialdeentzat.

Ministro Kontseiluaren erabakiak, zeina nazioarteko organizazio, erakunde edo taldeen erabakiak edo gomendioak aplikatuz onartu ahal izango baita, honako finantzazko kontraneurri hauek ezartzea ekarri ahal izango du, besteak beste:

a) Kapital-mugimenduak eta haiei dagozkien kobratze- eta ordaintze-eragiketak debekatu, mugatu edo baldintzatzea, bai eta transferentziak ere, direla hirugarren herrialde batetik honakoak edo hemendik harakoak, edo hirugarren herrialde horretako herritarren edo egoiliarrenak.

b) Aldez aurreko baimena ezartzea baldintza gisa kapital-mugimenduetarako eta haiei dagozkien kobratze- eta ordaintze-eragiketarako, bai eta transferentzietarako ere, direla hirugarren herrialde batetik honakoak edo hemendik harakoak, edo hirugarren herrialde horretako herritar eta egoiliarrenak.

c) Hirugarren herrialde bateko herritar edo egoiliar diren pertsona fisiko edo juridikoen jabetzako, edukitzako edo kontroleko funts eta baliabide ekonomikoak izozteko edo blokeatzeko erabakia hartzea.

d) Hirugarren herrialde bateko herritar edo egoiliar diren pertsona fisiko edo juridikoen jabetzako, edukitzako edo kontroleko funts edo baliabide ekonomikoak eskura jar daitezzen debekatzea.

e) Hirugarren herrialde bateko herritar edo egoiliarren negozio-harremanetan edo eragiketetan behar adinako arretaren neurri indartuak aplika daitezzen galdatzea.

f) Hirugarren herrialde bateko herritar edo egoiliarren eragiketak sistematikoki jakinarazi beharra ezartzea, baita hemendik hirugarren estatu baterako edo handik honako finantza-mugimenduak dakartzaten eragiketetan ere.

g) Hirugarren herrialde bateko finantza-erakundeen eskumendekoak, sukurtsalak edo ordezkari-taldea irekitzeko edo atxikitzeko debekua, mugak edo baldintzak ezartzea.

h) Hirugarren herrialde bateko finantza-erakundeei eskumendekoak, sukurtsalak edo ordezkari-taldea irekitzeko edo atxikitzeko debekua, mugak edo baldintzak ezartzea.

i) Hirugarren herrialdearekin edo hango herritar edo egoiliarrekin negozio-harremanak edo finantza-eragiketak debekatzea, mugatzea edo baldintzatzea.

j) Hirugarren herrialde batean kokatutako erakundeek ezartzen dituzten behar adinako arretaren neurriak onar ditzaten debekatzea behartutako subjektuei.

k) Hirugarren herrialdeko finantza-erakundeekiko korrespontsalia-harremanak berrikusi, aldatu, eta, hala balegokio, bertan behera uzteko galdatzea finantza-erakundeei.

l) Hirugarren herrialdeko finantza-erakundeen eskumendekoak edo sukurtsalak nahitaezko gainbegiratzearen edo kanpoko auditoretza edo azterketaren pean jartzea.

m) Finantza-taldeei, hemen bertan kokatuta edo hirugarren herrialde batean jarduten daukaten edozein eskumendeko edo sukurtsal dela-eta, baldintza indartuak ezartzea haien gaineko informazio edo kanpo-auditoretzari buruz.

3. Batzordearen Betearazpen Zerbitzuaren eskumena izango da artikulua honetan ezarritakoa betetzen dela gainbegiratu eta ikuskatzea.»

Zortzi. Hona hemen 52.1 u) artikulua beste era batera idatzita:

«u) Ez betetzea nazioarteko 42. artikuluan ezarritako baldintzen arabera finantza-kontraneurriak edo zehapenak ezartzeko betebeharra.»

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Erregelamendu bidezko garapena.*

Gobernuak, bere eskumenen eremuan betiere, lege honetan ezarritakoa betearazi eta garatzeko behar adina xedapen eman ahal izango ditu.

Ministro Kontseiluak, lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita hiru hilabeteko epean, errege-dekretu bat emango du Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren estatutu organikoa onartzeko.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau ematen da Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. paragrafoko 1., 13. eta 18. zenbakietan xedatutakoaren babesean. Salbuetsita geratzen dira honako hauek: 6. artikulua 2. paragrafoaren 2. lerroaldea; 9. artikulua; 10. artikulua 1. eta 2. paragrafoak; 11. artikulua; 21. artikulua 2. paragrafoa; 25. artikulua 1. paragrafoa; III. titulua eta bigarren xedapen gehigarria.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Indarrean sartzea.*

Arau hauek betez sartuko da indarrean lege hau:

- II. tituluan jasotako xedapenak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.
- Atariko titulua, I. titulua eta III. titulua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebetera sartuko dira indarrean.
- Autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako organoek gehienez ere bi urte izango dituzte lege honetan jasotako betebeharrei egokitzeko.

Beraz,

Lege hau betetzeko eta betearazteko agintzen diet espainiar guztiei, norbanako nahiz agintari.

Madril, 2013ko abenduaren 9a.

JUAN CARLOS E.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY